
ZUZENBIDEKO PROFESIONALENTZAKO TERMINOLOGIA-IKASTAROA



NORK

UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroa.



NORI

Talde profesionala	Abokatuak, eta, oro har, zuzenbide-arloko profesionalak.
Eskakizunak	Ikastaroan parte hartzeko ez dago eskakizun berezirik.
Parte-hartzaile kopurua	Gehienez 20



FORMATUA

Modalitatea	Prestakuntza-saioa
Kanala	Presentziala
Iraupena	3 ordu



EGITARAUA

Helburuak

- Zuzenbidearen arloko profesionalen euskara teknikoa hobetzeko baliabideak eskaintzea.
- Eguneroko jardunean profesional horiek behar duten terminologia kontsultatzeko oinarrizko iturriak partekatzea.
- Hiztegietan eta glosario espezializatueta jasota ez dauden kontzeptuak euskaraz izendatzeko estrategiak eta jarraibideak ikastea.

Motibazioa

Zuzenbide-arloko profesionalak euskaraz lan egiteko beharrezkoa dute terminologia ondo ezagutzea. Terminologia hori osatze- eta finkatze-bidean esperientzia zabala du UZEIk, Euskaltermerako lanetan eta Justizia Saileko Euskara Batzordean, besteak beste. Eta azken lau hamarkada hauetan metatutako ezagutzan oinarrituta prestatu du profesional euskaldunen neurria egokitutakoa ikastaroa, eguneroko jardunean behar dituzten euskarazko hitz teknikoak kontsultatzen eta erabiltzen lagunduko diena.

Edukiak

Ikastaro honek atal hauek izango ditu:

1. atala: Terminologiaren oinarrizko kontzeptuak eta ezaugarriak
2. atala: Zuzenbideari buruzko euskarazko terminologia gomendatua kontsultatzeko baliabideak eta gomendioak.
3. atala: Ohikoak eta adierazgarriak izan daitezkeen zenbait adibide erreal argitzeko saio praktikoa.

Metodologia

Ikastaroan metodologia teoriko-praktikoa erabiliko da. Terminologiaren oinarrizko ezaugarriak azaldu ondoren, profesional euskaldunek beren lanean hizkuntza-kalitatea bermatzeko erabil ditzaketen baliabideak erakutsiko dira, eta, azkenik, ohikoenak diren zalantzak argitzeko edo adierazgarriak izan daitezkeen arazo terminologikoei irtenbidea aurkitzeko saio praktikoa egingo da.